



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Federación
Alavesa de
Tenis de Mesa



Arabako
Mahai Tenisa
Federazioa

ESKOLA KIROLEKO ARAUDIA – MAHAI TENISA 2025-2026

1. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketetan parte hartu ahal izango dute Arabako Foru Aldundiaren eskola kirolaren aplikazioan (CUDE) modalitate horretako lehiaketan izena emanda dauden kirolariek, eta, beraz, dagokien eskola lizentzia dutenak.

B edo C kirol-anitzeko jardueran izena emanda egon daitezkeen kirolariek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta modalitate hau lehentasunezkoa edo hautatua bada.

Salbuespenak egin ahal izango dira eskola lizentziarik ez duten jokalariekin, kirola egitea sustatzeko. Salbuespen horietarako, txapelketa bakar batean parte hartu ahal izango da lizentziarik izan gabe. Hurrengo parte hartzeetarako, kirol erakunde bati atxiki beharko zaio.

Eskola ume transexualak beren sexu edo genero identitatearen arabera kirolaritzat hartuko dira, alegia, sentitzen duten sexuko edo generoko kirolaritzat.

2. PARTE HARTZAILEEN ADINAK/KATEGORIAK

Benjaminak (2017-2016) – Kimuak (2015-2014)

Haurrak (2013-2012) – Kadeteak (2011-2010)

3. LEHIAKETA EGUTEGIA

Arabako sailkapenerako puntuak lortzeko balio duten zazpi txapelketa egiten dira. Egutegia eta txapelketen egoitza urrian argitaratzen dira.

4. SAILKAPEN SISTEMA

1.a 65 puntu / 2.a 50 puntu / 3.a eta 4.a 35 puntu / 5.a eta 6.a 20 puntu / 7.a eta 8.a 5 puntu

5. IZEN EMATEAK

Txapelketetan parte hartu nahi duten kirolari guztiek 09:30etik 09:50era bitartean eman beharko dute izena joko instalazioan (Arriagako kiroldegia), txapelketaren egunean bertan.

6. BANAKAKO LEHIAKETA SISTEMA

Lehiaketa mistoa da eta adinaren arabera kategorietan bereizten dira jokalariek. Taldeen lehen fasean, lau edo bost jokalariko taldeak egiten dira, eta denek jokatzeko denen aurka. Talde bakoitzeko lehenengo bi edo hiru sailkatuak hurrengo fasera pasatzen dira, zeinetan zuzeneko kanporaketa baitago. Bost setetan jokatuko dira partidak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Federación
Alavesa de
Tenis de Mesa



Arabako
Mahai Tenisa
Federazioa

7. JOKO ARAUAK

Espainiako Mahai Teniseko Federazioaren joko arauetan jasotako joko araudia aplikatuko da.

8. DIZIPLINA ARAUTEGIA

Eskola Kiroleko Lehiaketan Diziplina Araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA aplikatuko da

9. KIROL LEGEA SUSTATZEA

Parte hartzaileen, ikusleen eta senideen artean kirol legea sustatzeko, nahitaezkoa izango da kirolariek elkar agurtzea partida bakoitzaren aurretik eta ondoren.

**ARAUTEGI HONETAN JASOTZEN EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK
ESPAINIAKO MAHAI TENISEKO FEDERAZIOAREN ARAUTEGIEI
JARRAITUZ EBATZIKO DIRA.**